



Gobernuaren Ordezkariordeztza Gipuzkoan, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari atxikiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean esleitutako eginkizun guztiak betetzen ditu, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren lurraldean dauden Erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko ekimenak koordinatuz, gainbegiratuz eta bultzatuz.

Ematen ditugun zerbitzuak

- | | |
|--|---|
| 1 Herritarrentzako informazioa eta arreta. | 11 Kanpo-osasuna. |
| 2 Emakumearen aurkako indarkeria. | 12 Landare-osasuna: inportazioaren/esportazioaren kontrol fitosanitarioa. |
| 3 Etorkinentzako zerbitzuak Espainian. | 13 Albaitaritza-osasuna: inportazioko/esportazioko albaitaritza kontrola. |
| 4 Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak. | 14 Itsas arrantza. |
| 5 Unibertsitate-tituluak legeztatzea eta unibertsitate-tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak jaso, erregistratu eta ematea. | 15 Tasak itzultzea. |
| 6 Lehergailuekin eta pirotekniarekin lotutako espedienteak izapidetzea. | 16 Administrazio-zehapenei dagozkien espedienteak. |
| 7 Desjabetzeak. Balio justuaren espedientea izapidetzea. | 17 Administrazio-baimenen eskaerak. |
| 8 Estatuaren esku-hartzea larrialdi edo hondamendi egoeretan. | 18 Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak. |
| 9 Nazioarteko txertaketa. | |
| 10 Farmazia ikuskaritza. | |

Kalitate-konpromisoak

- 1 Edozein bide erabiliz jasotako kexei erantzutea, Gobernuaren Ordezkariordeztzan sartzen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean.
- 2 Atzerritarren Bulegoan arreta jasotzeko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 21 egun balioduneko epean.
- 3 Nazioarteko txertaketa-zerbitzuetarako aurretiko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean.
- 4 Leherketa berezien enpresen baimen-eskaerak ebaztea, aurreko baimena iraungi baino gehienez 3 egun baliodun lehenago, betiere beharrezko dokumentazioa jasotzen bada.
- 5 Segurtasun-enpresetarako armazainen baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, Armen eta Lehergaien Kontuhartzaitzaren aldeko txostena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 6 Lehergailuak hornitzeko baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 7 Erregistro Arloko Laguntza Bulegoan arreta emateko aurretiko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun balioduneko epean.
- 8 Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei erantzutea, Atzerritarren Bulegoari, Hezkuntza Arloari, Lan eta Immigrazio Arloari eta Desjabetze Epaimahaiari izan ezik, posta jasotzen denetik gehienez 2 egun balioduneko epean.
- 9 Herritarrei Informazioa eta Arreta Emateko Bulegoan/Erregistroen arloko Laguntza Bulegoan informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei 2 egun balioduneko epean erantzutea, posta jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 10 Hezkuntza Arloari buruzko informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei gehienez 2 egun balioduneko epean erantzutea, posta jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 11 Tituluak homologatzeko eta baliokidetzeko eta sinadurak aitortzeko prozesuei buruz Hezkuntza Arloan telematikoki aurkeztutako informazio-eskaerei gehienez 2 egun balioduneko epean erantzutea, informazio-eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Kartaren unitate arduraduna:

Gobernuaren Ordezkariordeztzako Gipuzkoako Idazkaritza Nagusia

Pio XII, plaza 6 – 20010 Donostia/ San Sebastián

943 989 000

secretario_general.gipuzkoa@correo.gob.es

https://mpt.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/



Kontsultatu hemen zerbitzuen
kartaren testu osoa



Argitaratzen du: Lurralde Politikako eta
Memoria Demokratikoko Ministerioa
NIPO: 127-24-007-7